

*Urnietako Udala**Ayuntamiento de Urnieta**Signatura*

## 2008KO IRAILAREN 3KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 3 DE SEPTIEMBRE DE 2008

**Akta zenbakia:** 9/2008  
**Bilera data:** 2008-09-03  
**Bilera mota:** Ez Ohiko osoko bilkura  
**Deialdia:** Lehenengoa  
**Ordu:** 19:00- 19:30  
**Tokia:** Udaletxeko areto nagusia

**Acta nº:** 9/2008  
**Fecha:** 03-09-2008  
**Tipo de reunión:** Pleno Extraordinario  
**Convocatoria:** Primera  
**Hora:** 19:00 – 19:30  
**Lugar:** Salón de plenos del Ayuntamiento

**Bertaratutakoak:**  
**Alkatea:** Miguel Izaguirre Recondo

**Reunidos:**  
**Alcalde:** Miguel Izaguirre Recondo

**Zinegotziak:**  
 Juan M. Tomasena Alzuri  
 Mertxe Zapiain Intxausti  
 Hermenegildo Gonzalez Moran  
 Consuelo Frutos Gonzalez  
 Jose Guirado Novo  
 Nerea Sayavera Urchueguía  
 Maria Isabel Vaquero Montero  
 Miren Martiarena Barkaiztegui  
 Gaspar Esnaola Agesta  
 Juan Ignacio Mendizabal Eguia  
 Gotzone Astiasaran de Miguel

**Concejales:**  
 Juan M<sup>a</sup> Tomasena Alzuri  
 Mertxe Zapiain Intxausti  
 Hermenegildo González Morán  
 Consuelo Frutos González  
 José Guirado Novo  
 Nerea Sayavera Urchueguía  
 Maria Isabel Vaquero Montero  
 Miren Martiarena Barkaiztegui  
 Gaspar Esnaola Agesta  
 Juan Ignacio Mendizábal Eguia  
 Gotzone Astiasaran de Miguel

**Bitarteko idazkaria:**  
 Nagore Alkorta Elorza


**Secretaria interina:**  
 Nagore Alkorta Elorza

### Aztergaiak:

- 1.- 2008ko uztailaren 29ko akta onestea, bidezkoa bada.
- 2.- Urnietako berdegune, parke eta lorategiak zaindu, mantendu, egokitu eta garbitzeko CESPAn enpresarekin sinaturiko kontratua bertan behera uzteko espedientearen hasiera

### Orden del día:

- 1.- Aprobación, si procede, del acta de 29 de julio de 2008
- 2.- Inicio del expediente para la resolución del contrato suscrito con la empresa CESPAn para la prestación de los trabajos de conservación, mantenimiento, adecuación y limpieza de las zonas verdes, parques y jardines existentes en Urnieta



## **2008KO IRAILAREN 3KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 3 DE SEPTIEMBRE DE 2008**

**3.- Hiri Antolamenduko Plan Orokorra itzultzeko aurkeztu den alegazioari erantzutea eta informazio publikorako beste epe bat irekitzea, hasieran onartutako Hiri Antolamendurako Plan Nagusiko dokumentuari buruzko alegazioak aurkezteko.**

**3.- Contestación a la alegación presentada solicitando la traducción del PGOU y apertura de nuevo plazo de información pública para la presentación de alegaciones al documento de Plan General de Ordenación urbana aprobado con carácter inicial.**

### **1.- 2008ko uztailaren 29ko akta onestea, bidezkoa bada.**

Alkateak gaia aurkeztu du, eta esan du 2008ko uztailaren 29ko akta onartu behar dutela. Gero, inork horri buruz ezer esateko ba ote duen galdetu du.

EAJko bozeramaile Maribel Vaquerok hartu du hitza, eta adierazi du zehaztapen txiki bat egin nahi duela 10 etxebizitza sozialen zozketaren oinarrietarako erabili zuten argudioa dela eta. Nabarmendu du beraien proposamenaren arabera bi kupo izan behar zirela, alde batetik uste zutelako 10 etxebizitzarekin aukera handirik ere ez zegoela, eta bestetik hala gomendatu zutelako Gizarte Ongizate Saileko teknikariek; hain zuzen ere, teknikariek egin zuten txostenean guraso bakarreko familiak jo zituzten etxebizitza behar handiena zuen taldetzat. Eskatu du arrazoibide hori aktan jasotzeko.

Udal talde sozialistako bozeramaile Hermenegildo Gonzalezek hartu du hitza, eta adierazi du akta onartuko dutela, zazpigarren puntua, kreditu aldaketari buruzkoa, izan ezik; adierazi du oso gai luzea izan zela, landua eta, gainera, oso ondo argudiatua; esate baterako, 481. zenbakiko aurrekontu-saila, kanpoko lanei eta beste lan batzuei buruzkoa, zeinaren kontrako botoa eman baitzuten. Argudio hori jasotzeko eskatu du. Halaber, emandako

### **1.- Aprobación, si procede, del acta de 29 de julio de 2008**

El alcalde ha presentado este punto señalando que hay que aprobar el acta del 29 de julio de 2008; asimismo, ha preguntado si alguien tiene algo que comentar a este respecto.

Toma la palabra la portavoz de EAJ-PNV Maribel Vaquero señalando que quiere hacer una pequeña puntualización en relación a la argumentación que esgrimieron en relación a las bases del sorteo de 10 viviendas sociales. Recalca que según su propuesta debían existir dos cupos, por una parte porque entendían que con 10 viviendas tampoco había muchas posibilidades, y por otra, porque así lo recomendaron los técnicos del Departamento de Bienestar social, al estimar éstos en su informe como cupo de más necesidad de vivienda el de las familias monoparentales. Solicita que se recoja en el acta la referida argumentación.

Toma la palabra el portavoz del grupo municipal socialista Hermenegildo González señalando que aceptarían el acta excepto en el punto siete, el referente a las modificaciones de crédito, porque fue un punto muy largo, trabajado y además muy argumentado. Por ejemplo la partida presupuestaria nº 481, referente a otros trabajos exteriores y otros donde ellos han votado en contra, solicita que se recoja su argumentación. Solicita que dentro

*Urnietuko Udala**Ayuntamiento de Urnieta**Guzutara*

## 2008KO IRAILAREN 3KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 3 DE SEPTIEMBRE DE 2008

zerrenda aktan cranstecko eskatu du, bai eta 562. zenbakiko aurrekontu-saila ere, *Azterketak eta lana* izenekoa, hain zuzen ere 7 abstentzio izan baitziren, eta botoaren zergatia ere argudiatu baitzen.

Nagore Alkorta idazkariak erantzun dio akta ez zutela grabatu, eta botazio guztiak banan-banan oharrak hartu zituclako jaso ahal izan dituela, baina ez zuela hala egin emandako argudioekin.

Udal talde sozialistako bozeramaile Hermenegildo Gonzalezek hartu du hitza, eta adierazi du oker uler daitekeela soilik botazioaren zergatia azaltzea. Adierazi du zaila dela grabazio guztiak berridaztea baina ez kontu-sailak zertarako diren jaso zen zerrenda eranstea.

EAJko bozeramaile Maribel Vaquerok hartu du hitza, eta adierazi du lehenago ere egin duela eskaera hori, alegia, bileraren bat grabatu ez bada ohar hori egin dadila aktan, esanez hori dela-eta ez direla jaso udal taldeek emandako iritziak.

UDAKo zinegotzi Juan M. Tomasnak hartu du hitza, eta esan du 10 etxebizitza sozialen zozketaren oinarriei buruz emandako arrazoibidean ez zuela esan aktan agertzen dena bakarrik, baina grabatu ez denez oso zaila zaiola duela hilabete baino gehiago esandako hori gogoratzea.

Maribel Vaquerok erantzun dio esanez horrek ez diola balio; izan ere, horretaz hitz egiteko lehenago egin zen informazio batzordean beraiek egindako proposamenari esker onartu zuten kupoen aldaketa, eta horrexegatik nahi

del acta se incluya la lista que se les facilitó. Así como en relación a la partida nº 562 "*Estudios y trabajos*" donde hubo 7 abstenciones y argumentación del sentido del voto.

Le responde la secretaria Nagore Alkorta señalando que el acta no se grabó y que se han podido recoger cada una de las votaciones porque se fueron anotando una por una, aunque no ha sido así con las argumentaciones que se esgrimieron.

Toma la palabra el portavoz del grupo municipal socialista Hermenegildo González señalando que el hecho de aparecer sólo el sentido de la votación puede dar a error. Señala que es difícil volver a anotar todas las grabaciones pero no lo es añadir la hoja donde se recogió toda la relación del destino de las partidas.

Toma palabra la portavoz de EAJ-PNV Maribel Vaquero señalando que con anterioridad también ha hecho esta solicitud, en el sentido de que cuando no se haya grabado la reunión, se haga mención a ese hecho en el acta que se recoja y que por lo tanto no aparecen todas las opiniones emitidas por los grupos municipales.

Toma la palabra el concejal de UDA Juan M<sup>a</sup> Tomasena señalando, que en la argumentación que expuso en relación a las bases del sorteo de las 10 viviendas sociales, no dijo sólo lo que se ha puesto en el acta pero que como no se ha grabado resulta muy difícil recordar lo dicho con más de un mes de retraso.

Le responde Maribel Vaquero señalando que eso no le vale, porque se aceptó el cambio de los cupos gracias a la propuesta que hicieron ellos en la Comisión Informativa celebrada con anterioridad para tratar el tema y



## 2008KO IRAILAREN 3KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 3 DE SEPTIEMBRE DE 2008

dute aktan jasotzea.

que es por ello por lo que quieren que se recoja en el acta.

ANVko bozeramaile Iñaki Mendizabalek hartu du hitza, eta adierazi du udalbatzar guztietan berdin daudela eta ez dela serioa hitza paperetan islatuta gera dadin hain beharrezkoa den egitura-elementu hori ez konpontzea. Nabarmendu du konponbide tekniko bat hartu behar dela.

Toma la palabra el portavoz de ANV – EAE Iñaki Mendizábal señalando que en todos los plenos estamos igual y que no es serio que un elemento estructural tan necesario para que la palabra quede reflejada en los papeles, no se arregle. Recalca la necesidad de adoptar una solución técnica.

EAJko bozeramaile Maribel Vaquerok hartu du hitza, eta adierazi du Bozeramaileen Batzarrean aktei buruz hitz egin beharko luketela.

Toma palabra la portavoz de EAJ-PNV Maribel Vaquero señalando que el tema de las actas sería uno de los temas a tratarse en una Junta de Portavoces.

Udal talde sozialistako bozeramaile Hermenegildo Gonzalezek hartu du hitza, eta adierazi du beraiek ados daudela aktarekin, zazpigarren puntuarekin izan ezik, eta akta osoa bozkatzeko badute kontrako botoa emango dutela, uste baitute oso gai garrantzitsua jorratzen dela.

Toma la palabra el portavoz del grupo municipal socialista Hermenegildo González para señalar que ellos están de acuerdo con el acta salvo el séptimo punto y que si se somete a votación todo el acta votarán en contra al considerar que se trata de un punto muy importante.

ANVko bozeramaile Iñaki Mendizabalek hartu du hitza, eta adierazi du komenigarria litzatekeela aktan jasotzea ez zela bilera grabatu.

Toma la palabra el portavoz de ANV – EAE Iñaki Mendizábal señalando que sería conveniente que en el acta se recogiera el hecho de la no grabación de la reunión.

Udalbatzak 2008ko uztailaren 29an egindako udalbatzarraren akta onartu du, klausula bat erantsita, alegia, ez direla jaso adierazpen guztiak, ez zelako grabatu. Alderdi sozialistako zinegotziek kontrako botoa eman dute, ez baitaude ados aktaren zazpigarren puntuan idatzitakoarekin.

El Pleno ha aprobado el acta de la sesión plenaria celebrada el día 29 de julio de 2008, con la inclusión de la cláusula referente al hecho de que no se pudieron recoger todas las intervenciones tal y como se celebraron al no grabarse la sesión, con el voto en contra de los concejales del partido socialista al no estar éstos de acuerdo con la redacción del séptimo punto del acta.

*Urnietako Udala**Urnietako**Ayuntamiento de Urnieta*

## 2008KO IRAILAREN 3KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 3 DE SEPTIEMBRE DE 2008

### 2.- Urnietako berdegune, parke eta lorategiak zaindu, mantendu, egokitu eta garbitzeko CESPAn enpresarekin sinaturiko kontratua bertan behera uzteko espedientearen hasiera

Miguel Izaguirre alkateak hartu du hitza, eta adierazi du bere garaian CESPAn enpresarekin izenpetutako hitzarmena baliogabetzeko espedientea hasi zela, baina legez ezarritako epean baliogabetu ez denez, iraungitatzat daukatela. Prozesuan hainbat bilera egin dituzte enpresaren arduradunekin, auzia konpontzeko. Kontuan hartuta CESPAn enpresaren arduradunekin izandako negoziazioak, teknikariek egindako txostenak eta enpresak kontratuko betebeharrak hobetu eta betetzeko eman dituen kontraprestazioak, egokiago iritzi zioten kontratua bi aldeen adostasunarekin baliogabetzeko prozedura hasteari.

Kontratua baliogabetzean, Urnietako berdegune, parke eta lorategiak zaindu, mantendu, egokitu eta garbitzeko kontratua esleitzeko izapideak hasiko dira. CESPAn enpresak emango du zerbitzu hori, sektore publikoko Kontratuen Legean ezarritako prozeduraren arabera zerbitzu hori berriz esleitu arte.

Gero, alkateak hotazioa egitea proposatu du, eta honako emaitza hau izan du:

Alde: 12 (3 UDA, 4 PSE-EE, 3 EAJ-PNV, 2

### 2.- Inicio del expediente para la resolución del contrato suscrito con la empresa CESPAn para la prestación de los trabajos de conservación, mantenimiento, adecuación y limpieza de las zonas verdes, parques y jardines existentes en Urnieta

Toma la palabra el alcalde Miguel Izaguirre señalando que en su día se dio inicio al expediente para la resolución del contrato suscrito con la empresa CESPAn, pero al no resolverse el mismo en el plazo legalmente establecido se tiene por caducado. Durante el proceso se han mantenido diversas reuniones con los responsables de la empresa, todo ello, al objeto de poder dar solución a la demanda existente. Teniendo en cuenta las negociaciones mantenidas con los responsables de la empresa CESPAn, así como los informes emitidos por los técnicos y las conaprestaciones que ha venido prestando la empresa para mejorar y dar cumplimiento a las obligaciones contractuales, se consideró que sería más adecuado iniciar el procedimiento de resolución del contrato por mutuo acuerdo.

Una vez se haya resuelto el contrato se iniciarán los trámites para la adjudicación del contrato de prestación de los trabajos de conservación, mantenimiento, adecuación y limpieza de las zonas verdes, parques y jardines existentes en Urnieta. Será la empresa CESPAn la que se encargará de dicho servicio hasta la adjudicación del mismo conforme al procedimiento establecido en la Ley de Contratos del sector Público.

A continuación, el alcalde propone someterlo a votación, obteniendo el siguiente resultado:

A favor: 12 (3 UDA, 4PSE-EE, 3 EAJ-PNV, 2 ANV-EAE)



## 2008KO IRAILAREN 3KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 3 DE SEPTIEMBRE DE 2008

ANV-EAE)

Kontra: 0

Abstentzioak: 0

En contra: 0

Abstenciones: 0

Ikusirik 2008ko uztailaren 23ko Hirigintzako informazio batzordean eztabaidatu eta informatu zela gai honi buruz.

Visto que en la Comisión Informativa de Urbanismo celebrada el 23 de julio de 2008 se trató e informó sobre este punto.

Botazioaren ostean, Udalbatzak kide guztien aldeko botoarekin hartu du honako

Tras la votación, el Pleno por unanimidad de los miembros que conforman la Corporación ha adoptado el siguiente

### AKORDIOA

### ACUERDO

**Lehenengoa.-** Urnietako berdegune, parke eta lorategiak zaindu, mantendu, egokitu eta garbitzeko CESPA SArekin izenpetutako zerbitzu-kontratua baliogabetzeko prozedura abiaraztea, bi aldeen adostasunarekin.

**Primero.-** Incoar el procedimiento para la resolución del contrato de servicio correspondiente a los trabajos de conservación, mantenimiento, adecuación y limpieza de las zonas verdes, parques y jardines existentes en el término municipal de Urnieta suscrito con la empresa CESPA S.A, por mutuo acuerdo.

**Bigarrena.-** Kontratistari audientzia ematea 10 egun naturaleko epean, akordio honen jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, egoki iritzitako alegazioak egin ditzan.

**Segundo.-** Conceder audiencia al contratista en un plazo de 10 días naturales, contados desde el día siguiente al del recibo del presente acuerdo, al objeto de que presente cuantas alegaciones considere oportunas.

**Hirugarrena.-** CESPA SArri akordio honen berri ematea.

**Tercero.-** Notificar este acuerdo a la empresa CESPA S.A,

**3.- Hiri Antolamenduko Plan Nagusia itzultzeko aurkeztu den alegazioari erantzutea eta informazio publikorako beste epe bat irekitzea, hasieran onartuta dagoen Hiri Antolamendurako Plan Nagusiko dokumentuari buruzko alegazioak aurkezteko**

**3.- Contestación a la alegación presentada solicitando la traducción del PGOU y apertura de nuevo plazo de información pública para la presentación de alegaciones al documento de Plan General de Ordenación urbana aprobado con carácter inicial**

Miguel Izaguirre alkateak hartu du hitza, eta adierazi du bidalitako txosten juridikoan gisa honetako lanetan bete beharreko lege alderdiak

Toma la palabra el alcalde Miguel Izaguirre señalando que en el informe jurídico remitido se señalan los aspectos legales a cumplir en este tipo de actuaciones y que al no

*Hermieluko Udala**Euzko**Ayuntamiento de Hermielu*

## 2008KO IRAILAREN 3KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 3 DE SEPTIEMBRE DE 2008

azaltzen direla, eta lehendik ireki zen jendaurreko erakustaldian HHPN euskaraz ez dagoela jaso ez zenez, berriz ere jendaurrean erakusteko beste epe bat ireki behar dela, indarrean dagoen araudia betetzeko. Jendaurrean erakusteko hilabeteko epea jartzea proposatu du.

Udal talde sozialistako bozeramaile Hermenegildo Gonzalezek hartu du hitza, eta adierazi du aldeko botoa emango dutela, baina gogorarazi nahi dutela egoera hori, 15 hilabeteren buruan, atzerapen bat izan dela Hiri Antolamendurako Plan Nagusiaren prozeduran. Nabarmendu du beraientzat hau ezin dela ezertan ez gelditu, hemen erantzukizun politikoa dagoela, hau da, jendaurrean erakutsi bada eta alegazioak aurkezteko 2 hilabeteko epea jarri bada, uste dute gobernu taldeak erantzukizuna duela plan nagusia bere garaian euskarara ez itzuli izanagatik. Nabarmendu du azkenean herritarrak ordaindu behar duela. Idazkariaren txostena ontzat eman ez amaitu du azalpena, eta esanez mundu guztiak duela eskubidea dokumentu hori euskaraz izateko.

Alkateak erantzun dio esanez berak ez duela inola ere erantzukizun hori bere gain hartuko, arrazoi xume batengatik: alegazioen lehenengo fasea beraiek gobernuan egon aurretik egin zelako eta inork ez zuelako hutsegite horren berri eman, eta beraiek itzulpena egintzat eman zutelako. Nabarmendu du erredaktore taldearen akatsa izan dela, haien betebeharra baita dokumentua bi hizkuntza ofizialetan aurkeztea, eta orain salatu den irregularitasun hori bera aurreko aldian ere gertatu zela.

EAJko bozeramaile Maribel Vaquerok hartu du hitza, eta adierazi du aurreko agintaldian alegazioak aurkezteko jendaurreko

contemplarse el hecho de la inexistencia del documento del PGOU en euskera en el período de exposición pública abierto con anterioridad, ha de abrirse otro período de exposición pública en cumplimiento de la normativa vigente. Se propone la apertura del plazo de exposición pública por el período de un mes.

Toma la palabra el portavoz del Grupo Municipal Socialista Hermenegildo González para señalar que van a votar a favor, pero que sí quieren recordar que esta situación tras 15 meses, ha supuesto un retraso en el procedimiento del Plan General de Ordenación Urbana. Recalca que para ellos esto no puede caer en saco roto, que aquí hay una responsabilidad política, es decir, cuando se ha sometido a exposición pública y se ha establecido un plazo de 2 meses para la presentación de alegaciones, creen que había responsabilidades por parte del equipo de gobierno de que este plan general no se hubiera presentado en su momento traducido al euskera. Recalca que al final el que paga el pato es el ciudadano. Finaliza la exposición dando por bueno el informe de la secretaria y señalando que todo el mundo tiene derecho a que el documento esté en euskera.

Le responde el alcalde señalando que él no asume esa responsabilidad bajo ningún concepto además, por la sencilla razón de que la primera etapa de alegaciones se realizó en su momento antes de que ellos estuvieran en el gobierno y que nadie se dio cuenta de que existía ese error y que ellos daban por hecho la traducción. Recalca que es un error del equipo redactor al ser su obligación la presentación del documento en los dos idiomas oficiales y que la misma irregularidad que se ha denunciado ahora ocurrió en el anterior plazo.

Toma la palabra la portavoz de EAJ-PNV Maribel Vaquero señalando que cuando en la legislación anterior se abrió el primer período



## 2008KO IRAILAREN 3KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 3 DE SEPTIEMBRE DE 2008

erakusketaren aldia ireki zutenean ez zela inolako alegaziorik izan horren gainean, nahiz eta aurrerapena bi hizkuntza ofizialetan argitaratu zen. Onartu du beraiek ere ez zirela konturatu itzulpena eginga ez zegoela, eta alde horretatik badutela erantzukizunaren parte bat, baina uste du politikoki denek onartu beharko luketela erantzukizun hori, errua batzuei edo erredaktore taldeari soilik bota beharrean. Adierazi du alegazio horrekin prozesua atzeratuko dela, jendaurreko erakusketaren hasierako bi aldietan ez baitzen horri buruzko alegaziorik izan. Hilabetez jendaurreko erakusketarako aldia irekitzearen alde daude, legeak xedatzen duen bezala, eta eskatu dute herritarrak informa daitezela alegazioak aurkezteko aukera dutela jendaurreko erakusketaren aldi berri honetan, zergatia azalduta.

ANVko bozeramaile Iñaki Mendizabalek hartu du hitza, eta adierazi du berak ez diola errua inori botatzen, daukanari baino ez. Gogorarazi du Hiri Antolamendurako Plan Nagusiaren dokumentua bi hizkuntzetan aurkezteko betebeharra jasota zegoela erredaktore taldearekin izenpetutako kontratuan eta ezin dutela pasatzen utzi behar betebeharrak hori bete ez izana. Ohartarazi behar zaie ez dutela beren betebeharra bete, hortxe dagoela Legea. Galdetu du zer gertatuko zatekeen baldin eta kontratuko beste betebeharren bat bete izan ez balute, eta esan du beste modu batera jokatuko zutela. Adierazi du planteamendu serioa egin behar zaiola erredaktore taldeari, eta beren errua onartu behar dutela.

Gero, alkateak botazioa egitea proposatu du, eta honako emaitza hau izan du:

Alde: 12 (3 UDA, 4 PSE-EE, 3 EAJ-PNV, 2 ANV-EAE)

Kontra: 0

Abstentzioak: 0

de exposición pública para la presentación de alegaciones no hubo ninguna alegación en ese sentido, aunque el avance sí se publicó en los dos idiomas oficiales. Acepta que ellos tampoco se dieron cuenta de la no traducción y que en ese sentido sí tienen un punto de responsabilidad pero considera que políticamente todos deben aceptar esa responsabilidad sin que la culpa se eche sólo a unos o al equipo redactor. Señala que con esta alegación se retrasa el proceso, al no presentarse en los dos períodos iniciales de exposición pública ninguna alegación al respecto. Se muestran a favor de la apertura del período de exposición pública por el plazo de un mes tal y como se señala en la ley, a la vez que solicitan que se informe a los ciudadanos de la posibilidad de presentar alegaciones en esta nueva apertura del plazo de exposición pública añadiendo el porqué del mismo.

Toma la palabra el portavoz de ANV Iñaki Mendizábal señalando que él no le hecha la culpa a nadie, sólo al que la tiene. Recuerda que la presentación del documento del Plan General de Ordenación urbana en los dos idiomas era una obligación recogida en el contrato suscrito con el equipo redactor y que no se puede pasar por alto su incumplimiento. Hay que avisarles de que no han cumplido con su obligación, que ahí está la Ley. Pregunta qué pasaría si el incumplimiento contractual fuese de otra índole, señalando que actuaríamos de otra forma. Señala que debe de hacerse un planteamiento serio al equipo redactor, debiendo éstos aceptar su culpa.

A continuación, el alcalde propone someterlo a votación, obteniendo el siguiente resultado:

A favor: 12 (3 UDA, 4PSE-EE, 3 EAJ-PNV, 2 ANV-EAE)

En contra: 0



Urnietako Udala



Ayuntamiento de Urnieta

Gipuzkoa

## 2008KO IRAILAREN 3KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 3 DE SEPTIEMBRE DE 2008

Abstenciones: 0

Ikusirik 2008ko uztailearen 23ko Hirigintzako informazio batzordean eztabaidatu eta informatu zela gai honi buruz.

Visto que en la Comisión Informativa de Urbanismo celebrada el 2 de junio de 2008 se trató e informó sobre este punto.

Botazioaren ostean, Udalbatzak kide guztien aldeko botoarekin hartu du honako

Tras la votación, el Pleno por unanimidad de los miembros que conforman la Corporación ha adoptado el siguiente

### AKORDIOA

### ACUERDO

**Lehenengoa.-** Informazio publikorako beste epe bat ezartzea, 2007ko maiatzaren 4an hasieran onartu zen Urnietako Hiri Antolamendurako Plan Nagusiaren gainean ALEGAZIOAK aurkezteko.

**Primero.-** Abrir un nuevo plazo de información pública para la presentación de ALEGACIONES al documento de Plan General de Ordenación Urbana de Urnieta aprobado con carácter inicial a fecha 4 de mayo de 2007

**Bigarrena.-** Dokumentu hori jendaurrean erakustea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta egunkari hedatuenetako batean iragarki bana argitaratuta. Alegazioak aurkezteko epea hilabete batekoa izango da, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontatzen hasita.

**Segundo.-** Someter el referido documento a exposición pública mediante la publicación de sendos anuncios en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en uno de los diarios de mayor tirada, por el plazo de un mes, para que cualquier persona interesada pueda presentar las alegaciones que tenga por oportunas.

**Hirugarrena.-** Sektorean eskumena duten administrazio publikoei informazio publikorako irekiko den epearen berri ematea, jakinaren gainean egon daitezten eta txostena egin dezaten.

**Tercero.-** Notificar la apertura del nuevo plazo de información pública, para su conocimiento e informe, a las administraciones públicas con competencias sectoriales.

Azkenik, eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak bukatutzat eman du ezohiko osoko bilkura hau, goiburuan adierazitako eguneko zazpiak eta erditan, eta nik, Urnietako bitarteko idazkariak, hala egiaztatu dut, alkatearen oniritziarekin.

Finalmente, no habiendo más asuntos que tratar, el alcalde da por finalizado el presente pleno extraordinario, siendo las siete y media de la fecha indicada en el encabezamiento, se levanta la sesión, de la que yo, la secretaria interina de Urnieta, certifico con la aprobación del Alcalde.

Sin.: Nagore Alcorza Elorza  
Bitarteko idazkaria.

Sin.: Mikel Izagirre Rekondo  
Alkate-lehendakaria.

